



HIRI LIFE

HIRI-BIODIBERTSITATEA

HIRILIFE Aranzadi Zientzia Elkarteko sailen arteko proiektu bat da. Honen helburua **hiri-biodibertsitatea ikertzea, dibulгатzea eta hiri-biodibertsitatea kontserbatzeko eta sustatzeko dagoen beharraz hezitzea** da.

HIRILIFE*n* **ikertzaile, ikasle, bertako agenteak eta herritarrek parte hartzea** elkartzen da, biodibertsitatea sustatzeko asmoz, hiri-habitata ezagutu eta hobetzera bideratutako jardueren bitartez.



HIRILIFE PROIEKTUA EZAGUTU www.hirilife.eus

Hiri biodibertsitatearen inguruan antolatzen ditugun jardueri buruz informatzeko proiektuaren webgunean eta Aranzadiko agendan sartu.

Aranzadiko bazkide egin zaitez, martxan dauden proiektuetan elkarlanean aritu eta ingurumena eta kultura ondarea kontserbatzen lagundu.

Informazio gehiago
www.aranzadi.eus/socios edo
943 466 142 telefonoan.



HIRI LIFE



FUNTSEZKO IDEIAK

• HIRI-BIODIBERTSITATEA:

gure hiri eta herrietan dauden bizi-formen aniztasuna da.

• BIODIBERTSITATEA, GARRANTZITSUA AL DA?

Bai, ekosistemen oreka mantentzen baitu eta, era berean, gure planetan bizi diren espezie guztien biziraupenerako beharrezkoa da, gizakia barne.

• BIODIBERTSITATEA ETA OSASUNA.

Hiri-biodibertsitateak gure osasunean eragin zuzena du. Hau kontserbatzea hiriko biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko onuragarria da.



HIRI LIFE



ZER EGIN DAITEKE?

Gure ingurune hiritartuan biodibertsitatea hobetzeko hainbat modu daude. Batzuk oso errazak dira:



Lorategi, balkoi eta terrazetan **hegaztientzako habia-kutxak eta jantokiak kokatu.**



Zure eraikina eraberritzerako orduan **galdetu animalientzako babeslekuei buruz**, saguzar, sorbeltz edo hontza zurientzako esaterako. Animalia hauek, gainera, intsektu eta karraskarien izurriteak kontrolatzen laguntzen dute. Saiatu, gainera, existitzen diren zulo edo tartetxoak kontserbatzen, animalia askok erabiltzen baitituzte.



Ez ipini landare exotiko inbaditzailerik zure lorategian eta ez askatu zure maskotak. Jakinarazi Udalarari hirian aleren bat ikusten baduzu.



Saihestu heskai eta zuhaitzak kimatzea eta belarra moztea umatze garai bete-betean (apiriletik ekainera).



Hiriko **parke eta lorategiak** zaindu eta errespetatu.



Parke eta lorategietan **zarata egitea saihestu.**



Zure **txakurra lotuta** edo kontrolpean mantendu.



Kalean dauden **katuak ez elikatu.** Urtero, etxeko katuak milioika txoritxo hiltzen dituzte Europa osoan.

